


Noaia!!!

www.noaia.com



Asteburu honetan,
festak Santuenean



Datorren astelehena,
Auzorik Gabeko Eguna

LIZARDI LIBURVENDEA



Liburuak, aldizkariak, musika, opariak,
eskola materiala, testu liburuak,
enkuadernazioak eta fax zerbitzua

Etxebeste kalea, 1
☎ 943 361 115



Ondo pasa Jaietan!

*Arrotzetik sagardoa
jurtzaita jasaitzina!*

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31
Mobila: 670 02 77 31



SAGARDOTEGIA

ANTXETA jatetxea



bokatak · eguneroko menuak
plater konbinatuak
bodak eta bataioak

EGUZKITZA 4 · 943 370 344



www.noaua.com
M M M U O O O O C O W



usurbildarron zerbitzura



Albistea iruditan !

Errausketaren aurkako giza-katea

Kontxako bi banderak nortzuk irabaziko zituzten jakiteko egunean, urteroko hitzordua antolatu zuten errausketaren aurkako plataformek. Aurtengoan eguraldi kaxkarrari aurre eginez, Kontxako hondartzan giza-katea osatu zuten pasa den irailaren 14an.

Errausketaren aurka daudela aldarrikatu eta haren ordeztu, alternatibak badirela gogorarazi zuten.

Han eta hemen osatu diren herri plataformetako kideak hurbildu ziren Gipuzkoako hiriburuko hondartza ezagunenera. Irudian ageri denez, zubietarako tartean. Aldarriak dioen bezala, bizi-rik eta alternatiben aldeko apustu garbia eginez, beste behin.



IRUDIAN, KONTXAKO HONDARTZAN BURUTUTAKO GIZA-KATEA.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

MUGIKORTASUNAREN ASTEA	6. OR.
IKASTARO UGARI, HASTEAREN	10. OR.
TXUPINAZOAREN ZAIN SANTUENEAN	12. OR.
IGANDEAN, HERRI LASTERKETA	15. OR.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

LATAILLADE ITURGINTZA

GASA BEROKUNTZA MANTENIMENDUA ETA KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
 943 360 466

pintxoak
 ogitartekoak
 plater konbinatuak

TABERNA



NEREA ZINKUNEGI

Gustu txarreko kapituluak

Oporren ostean denboraldi berria, kapitulu berriak. Betiko pertsonaiak eta "pertsonaje" berriak. Goenkale moduan, serie amaigabe bat da bizitza. Pasarte berriak betiko pertsonaiekin eta ahaztu ezin diren pasarteak "pertsonaje" berrieekin.

Tarteka eszenatokia aldatzen da, eszenatokiaren itxura behintzat, atrezzoan ari direnen lanari esker, eta bailara zoragarria zena ziztu bizian pasatzen den trenaren karrilak marrazten du infiniturainoko bi marra paraleloz, arrotza zaigun hizki exotikoa osatuz.

Gipuzkoa kostako hondartzak marradun olanaz janzen dituzte uda partean, gutxi batzuen lihozko alkandoren kolorea eguzkiak jan ez dezan, eta guztio-na den hondar fin eta atsegina bereganatzen dute, "expropiatzen" digute, ekainaren 15etik irailaren 15era.

Badira bizitzaren zenbait kapitulu, denboraldia joan

eta denboraldia etorri errepikatzen direnak eta mila bider ikusita ere, zer gertatuko den alde aurretik jakinda ere, begiak zabal zabalik ditugula ikusten ditugunak, ikusten duguna ezagutzen dugun arren, oraindik ere txundituta uzten gaituztenak, adibidez, Kontxako bandera arraunean jokatu ondorengo manifarena.

Badira kapitulu beldurgarriak bizitzan, errepikatzen direnak baita ere, adibidez "bera" zuelako emaztea akabatu zuen gizajo harena, eta beste harena, eta beste harena, eta beste harena, eta beste harena...

Baina badira bereziki hunkitzen gaituzten kapitulu ahaztezinak, ulertezinak, gauean arnasesetuka esna arazten gaituztenak, eguna joan eta eguna etorri pelikula honetako gidoilariaren lepoa bihurtzeko ideia maltzurra pizten dutenak, gertatu beharko ez luketena, baina gertatzen direnak... Gora bihotzak!

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika !!

Itxura denez, batzuen batzuk ipurdia poltronan ondo itsatsita edukitzearen herritarren osasunarekin, ingurugiroarekin eta gure etorkizunarekin arduragabe jokatzeko prest daude. Jendarte kontsumista honek sortzen duen zaborren arazoari aurre egiteko dauden aukerak aztertu beharrean, munduko hainbat lekutan martxan diren sistemak ikertu beharrean, gaiarekin politikakeria egitea besterik ez zaie bururatzten.

Erraustegia inposatu nahi digute. Erraustegia herrira ekarri nahi digute. Inorentzako izan beharko ez luketen dioxina, furano, metal astun eta abarren salda toxikoa, arnastu eta janarazi-

Minbizia herrian

ko digute guri, gure haurrei... Horren aurrean, beste batzuk alternatibak bilatu eta garatzeari ekin diote arazoei konponbideekin erantzunez demagogia merkearekin erantzun beharrean. Eta zorionez, gaur esan dezakegu Usurbil gai honetan Gipuzkoan eta Euskal Herrian eredu izateko bidean dela.

Atez ateko bilketa sistema garatu duen Puigpunyent herriko zinegotzia hango esperientzia ezin positiboagoa (%20 gaika jasotzetik %80 gaika jasotzera igo dira denbora gutxian) azaltzera etorri zenean oso garbi esan zuen arrakastaren gakoetako bat zein zen. Izan al zineten bertan? Tira zertarako

ezagutu beste esperientziak ezta? Lehenago erabaki eta gero entzun. Edo hobe oraindik, erabaki eta entzun ez, ze demonio! Ba gakoetako bat, politikakeriak utzi eta herritarren mesedetarako horrelako gai garrantzitsu baten aurrean, alderdi guztiak batera era konstruktiboan jardutea da.

Herritarren osasunaren kontura ez zaitezte errenta politikorik lortzen saiatu. Atez ateko gaikako bilketak erraustegiaren beharrik eza agerian utzi dezake eta hori herritar guztion onerako da, gure ideologia edozein dela ere.

Usurbil Bizirik

teilatuen eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
☎ **943 69 68 52 · 620 800 186**

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Usurbilgo Eusko Alkartasunak webgunea jarri du martxan

Aldizkari honetan iragarri zen bezalaxe, Usurbilgo Eusko Alkartasunak webgune propioa jarri du martxan. Herriko eta, batez ere, udaleko berriak zabaldu eta hauen inguruan bisitarien gogoetak bildu nahi ditu. Helbide honetan aurkituko duzue, www.eausurbil.net.

Alderdiko kideek egindako adierazpenak nahiz Usurbilgo taldeak egindako hausnarketak biltzen dira webgune berrian. Tartean da “Kiratsa herrian” izeneko idatzia, NOAUAlk irailaren 5ean argitaratu zuen ika-mika. Gai honen inguruan ere badira beste hainbat idatzi, “Atez ateko bilketa kostako zaiguna” izeneko, non bilketa sistema berriak sor ditzakeen gastuei buruzko hainbat gogoeta planteatzen diren.

“Zubietako Herri Batzarraren dirukontuetan irregulartasunak” eta “Kontsulta Legeari buruz egindako prentsa oharra” dira sarean ipini dituzten beste hainbat berri, guztiak aipatu dugun www.eausurbil.net helbidean ikusgai.

Donostiako Plan Orokorrari hiru alegazio

Webguneak dioenez, Donostiako Udalak onartu duen “Donostia Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren Hasierako Onespeneren” aurrean, hiru alegazio aurkeztu ditu Usurbilgo Eusko Alkartasunak:

“Lehena, errausgailuaren kokapenaren aurka. Plan Orokorrerik kentzeko eskatu da.

Bigarrena, zubi berri baten inguruan: zubi berria behar beharrezkoa da ibaiaren bi ertzak lotzeko, baina kokatu den lekua – kaxkoa eta Txikiardi lotuz – ez da egokiena. Gure ustetan zubi Lasarte-Oriatik gertuago egon behar du hipodromo inguruan doazen etxeetako trafikoa kaxkotik urrunduz.



IRAILAREN 10 ETIK SAREAN DA WWW.EAUSURBIL.NET ATARIA.

Hirugarrena, hipodromoa eta zubi lotuko duen biala, eta bial honen luzapenaren aurka doa, Usurbil aldera kaxkoa zeharkatuz joango dena. 15 metro zabalera izango duen bial batek ez du zentzurik, are gutxiago Usurbil aldean jarraipena izango ez duenean. Gure ustetan egokiagoa litzateke Zubietaren hegoaldean bide publikoa egokitzea Zubieta eta Usurbil lotzeko, bai motorduntzat bai ez motorduntzat eta oinezkoentzat”.

Ika-mika !!

Makrokartzelak: arrakasta ala porrota?

Olinpiadetako espirituak ukituta edo, Espainiako Gobernuak dagoeneko marka berri bat hautsia du. Espetxeetako aurreikuspena, 2012ra begira, 80.000 plaza betetzea bazen, aurtengo udan 71.000ra iritsi gara. Europako mailari dagokionez zifrarik altuena da ehunekoetan, 1.000.000 biztanleko 154 espetxeratu, markarik onenak apurtuta: Ingalaterrak 152 ditu, Holandak 128, Italiak 104, Alemaniak 95 edo Frantziak 85. Eta hori guztia delinkuentzia-tasarik baxuena mantentzeaz gainera: EBeko batz besteko 20 puntuen azpitik, alegia (69 arau-hauste 1.000 biztanleko).

Bidenabar esan dezagun Donostiak Zubietako aukeratu duela, bere ekarpen berezia eginez, proiektu arrakastatsua hori kokatzeko. Makrokartzela bat eraikiko digute 15 hektareatako lur-sail batean (Martutenekoa baino 7 aldiz handiagoa), 500 plaza dituen (hala diote). Halere, kalkulagailua hartu eta beraiek esaten dizkiguten datuekin kontuak egiten hasten bagara, zenbakiak ez

datoz bat: 36 zeldako 6 modulu, 72 zeldako 4 modulu balio anitzeko (hau da, ohatze –litera– bat sartzen badugu, hortxe ditugu bi preso); bestela ez dira 700 plaza irteten (beraiek aitortzen dutenez zeldak 2 pertsonentzat prestatuak daude, eta beharrezko direnean erabiliko dira); eta hori guztia, 44 sarrera, 32 isolamendu (erregimen itxikoak), eta erizaintzako 44 zelda zenbatu gabe. Hori bai, 13 metro karratuko gelak izango lituzkete, zelda partekatzen duenarekin intimitatea bionbo baten atzean izatekotan.

“Zelda bakoitzeko pertsona bat” esku-bideari buruzko diskurtsoak ere ez digu balio, pilaketarekin amaitzeko. Izan ere, behin eraiki ondoren, Zentro Tipo (makrokartzela) deitzen diren horien errealitateak itxaropen guztiak gaintzen ditu, eta % 50eko edukiera handiagoa dute sortu zirenean baino: Zuera, Castellon, Puerto III... Hainbeste kartzela-plaza sortzeko interesa ezin ulerturik gabilta, Martutenen espetxeratuak diren 300 pertsonen kopurua doi bat

gaintzen denean. Ezin ulerturik gabilta bezala, EAeko lau espetxeen artean (etorkizunean Nanclares de Ocan eraiki nahi duten makrokartzela kontuan hartuta) zergatik izan behar duten 4.000 plaza, espetxera zigortuak edo epaiaren zain dauden pertsonen artean 2.000 pertsonen kopurua gaintzera iristen ez garenean.

(...) Hau guztiaren aurrean, Gipuzkoako udaletako alderdi politikoek zer jarrera hartzen duten jakin nahi du Makrokartzelen Aurkako Plataformak. Zentro Tipoak (makrokartzelak) sortzearen aurkako mozioen bidez, hauxe lortu nahi dugu: espetxeratzeko eta zigor-betearazpenaren politikan benetako aldaketaren aldeko azaltzea. Eta pertsonak kartzelatze soilaren ordezkotako beste neurri askoz ere zuzen, gizatiar, eraginkor eta merkeagoak bultzatzearen aldekoak izatea.

Makrokartzelaren aurkako plataforma (Salhaketa, Arrats, Loiolaetxea, LAB, Aralar eta Zubietako Herri Batzarra)

Saioa Erro: “Landa-eremuan gero eta jende gutxiago bizi da, gainbehera garbia da”

Usurbilgo landa-eremuan bizi diren adinekoen bizi-baldintzak edota haiek gizarte zerbitzu desberdinei buruz duten informazioa ezagutzeko landa-eremuko diagnostia osatu du Saioa Erro herritarrak, Behemendik Donostiako Landa Garapen Elkarteak eta Usurbilgo Gizarte Zerbitzuek bultzatuta. Eremu horretako herritarrek aipatu dituzten beharrak, gabeziak, ontzat jotako zerbitzuak, hobetu beharrekoak... asko izan dira. Datu bilketa horren guztiaren emaitzak Sutegin aurkeztu zituzten pasa den irailaren 16an.

NOAUA! Duela bi urte ekin zenion ikerketari. Zenbat baserritara jo zenuen?

Saioa Erro. Kalezar, Aginaga, Urdaiaga, Txiki-Erdi eta Zubietako 102 baserrietara iritsi ginen.

SAIOA ERRO

“Adineko jendeak aipatzen duenez, ahal duen bitartean lanean jarraituko du, baina gero...”

N. Elkarrizketatuen aldetik zer nolako harrera jaso zenuen?

S. E. Karta bidez eta joan aurretik telefonoz deitzen nuen, haiek etxean izango zirela ziurtatu eta ni joango nintzela jakinarazteko. Baten batek joaterik nahi ez bazuen, esan zezan. Harrera oso ona egin zidaten. Egindako deietatik hiruk ez joateko esan zidaten, eta errespetatu zen. Gainerako guztietan oso harrera ona egin didate.



EHUNDIK GORA ELKARRIZKETA BIDEZ OSATU DUTE LANDA EREMUKO ADINEKO HERRITARREN ONGIZATE BEHARREN DIAGNOSIA.

N. Ehundik gora elkarrizketa egin eta gero, datu asko aterako ziren. Baina kasu askotan antzekotasunak izango ziren?

S. E. Garraioaren gaian. Adineko pertsoneri buruz ari garenean, kasu askotan zaintzaile bat dago. Zaintzaile hori senitartekoa zaintzeaz eguneko 24 orduetan arduratzen da. Baina une batzuetan ezinezkoa zaio zaintza lan

hori egitea. Orduan, momentu puntualerako zer laguntza mota dauden galdetu izan dute. Hilean egun batean, ordu batzuetarako erosketak egiteko adibidez, ez baitute zaindutako pertsona bakarrik utzi nahi. Bestalde, landa eremuko biztanleek baserriko lanerako laguntza behar dute, laguntza baserriko lanak aurrera eramateko.

N. Asko dira landa-eremutik urrundu direnak?

S. E. Bai eta adineko jendea da han gelditzen dena. Adineko jendeak aipatzen duenez, ahal duen bitartean lanean jarraituko du. Baina gero...

ZERBITZUEN BERRIRIK EZ

Etkez etxeko laguntza edo Eguneko Zentroaren berri badute, baina beste zerbitzu batzuk ez dituzte ezagutzen

N. Halako ikerketetan, hainbat zerbitzuekiko urruntasuna adierazi izan dute landa-eremuko herritarrek. Zeure kasuan halakorik baieztatu duzu?

S. E. Zerbitzu batzuk ezagunak ziren haien artean; etkez etxeko laguntza edota Eguneko Zentroa, asko hitz egin delako zerbitzu horietaz. Baina agian, tele-alarma ez da oso ezaguna, ez dute asko ezagutzen. Laguntza teknikoak ere ez, ezta bono-taxi zerbitzua ere. Gazteak badira, gehiago dakite. Beste batzuek aldiz, ez dute ezer jakin nahi.

N. Duela hamar urte antzeko beste ikerketa bat egin zen. Orduetik hona zer aldaketa sumatu duzu?

S. E. Lehengo ikerketaren kopia batekin joaten nintzen, zer aldatu den ikusteko. Gainbehera garbia ikusten da. Jendeak gehienbat etxerako lan egiten dute, eta etxerako lan egiten dutenak ez dauden egunean, lan horiek egiteko inor ez da egongo.

N. Zer aportatu dizu lan esperientzia honek?

S. E. Jende eta baserri asko ezagutu ditut. Aberasgarria izan da, herria askoz gehiago ezagutzeko aukera izan dut. Nire helburua, lana bukatu baina egindakoak emaitzaren bat izatea zen.

Azterketaren emaitzak

Ehundik gora elkarrizketatuetatik datu sorta ederra eskuratu du Saioa Errok. Hona hemen bere ikerketako emaitza batzuk eta horiek aintzako-tzat hartuta, planteatutako hainbat proposamen.

Lagina: 65 urtetik gorako 897 biztanle gutxi gorabehera (Usurbilgo biztanleria-
ren %15,40. 498 emakumezko eta 399 gizonezko), 2006ko abenduan.

Adina: gehienak 65-69 eta 70-74 urte artekoak.

Jasotako informazioa

Bisita kopurua: guztira 122 baserri daude. 80 bisitatu eta 120 elkarrizketa burutu dira. Hiruk ezezkoa eman zuten.

Familia

Elkarrizketatuen elkarbizitza mota gehienetik gutxira: seme-alabekin (%30), ezkontidearekin (%26 inguru), ezkontide eta seme-alabekin (%22 inguru), anai-arrebekin (%16 inguru).

Ekonomia

Diru sarrerak: ezer ez (%11), minimoa baino (%34), minimoa baino gehiago (%43).

Ezintasuna

Ezindu fisikoak: %20, gehienak 80-84 urte artekoak.

Mugikortasuna

-Arazorik ez: %79.
-Mugikortasun arazo arinak: %13.
-Mugikortasun arazo larriak %8.

Mendekotasuna

Sexuka: emakumezkoak (%15 inguru), gizonezkoak (%9 inguru).

Mota: erosketak eta etxeko lanak egiteko, medikazioaren ardura eramateko, garraioa edota autoa erabiltzeko, bainatzeko edo norbere garbitasunerako. Bataz beste, mendekotasun maila bikoitza emakumezkoek, gizonezkoenaren parean.

Ez menpekoen eguneroko arazoak: gehienak autoa edo garraioa erabiltzeari lotuak.

Asistentzi laguntza: gehienetan senitarteko emakumezkoen eskutik.

Baserri eta etxebizitzaren egoera

-Berrria edo berritua: %44.
-Zaharra baina egoera onean: %38.
-Berritzeko premia: %18.

Gizarte zerbitzuak

Ezagutza maila: etxez etxeko zerbitzua eta Eguneko Zentroa %80tik gora, Imersoko bidaiak %70 inguru, tele-alarma zerbitzua %60tik gora. Aldiz, Aldundiko dirulaguntzak eta aldi baterako egonaldiak %30etik behera. Termalismoa, bono taxia eta laguntza teknikoa %20tik behera. Sendian programa %10etik behera.

Ondorio nabarmenak

Baserriarrei lotuta

-Etxean bizitzen jarraitzeko nahia.
-Kale ekintzetan parte hartzeko ohiturarik ez.
-Famili artekoen laguntzarekin moldatzen dira gehienetan, baina laguntza puntualetan nora jo ez dakite.
-Zaintzaileak, emakumezkoak.
-Garraio falta.
-Bide bazter batzuk garbitu eta egokitu beharra.
-Bost urte barru, adinduen gehiengo, 75-84 urte artekoa.

Gizarte Zerbitzuak

Baloratuena: tele-alarma, Eguneko Zentroa, bono-taxia, laguntza teknikoak, jubilatutako ekintzak.

Falta: administrazioak eskatutako bete-behar guztiak ados ez, zaintzaileek laguntza gehiagoren beharra, baliabideen inguruko informazio zehatzagoa.

Proposamen batzuk

-Zaintzaileentzat prestakuntza ikastaroa.
-Garraio irisgarri publiko eta ekonomikoa; udal bono-taxi zerbitzua.
-Auzoetan dinamizazio programa bat hedatzea.
-Trenaren eta autobusaren erabilpen egokiagoa.
-Gizarte baliabideei buruzko informazio triptikoa helaraztea.
-Egoera kaxkarrean dauden herri-bideen konponketa.

Hasi da Mugikortasunaren Astea

“Aire garbia denontzat, osasunaren alde, errausketarik ez!” lemapean

Landa-eremuko adinekoen gizarte ongizate beharren diagnostikoari lotutako emaitzen eta zerbitzu berriaren aurkezpenekin hasi da Udalak antolatu duen Mugikortasun Iraunkorraren Astea.

Irailaren 22ra arte, antzerki emanaldi edota hitzaldiak entzuteko aukera izango da. Edizio honetarako antolatzaileek hautatu duten aldarriak gaurkotasun handiko gai bati erreferentzia zuzena egiten dio; *“aire garbia denontzat, osasunaren alde, errausketarik ez!”*

Usurbilen bakarrik ez, hemendik kanpo ere Europa osoan ospatzen baita egunotan Mugikortasun Iraunkorrari eskainitako astea.



TXERRIKI ANTZERKI TALDEA MUGIKORTASUNAREN ASTEAN ARITUKO DA.

Irailak 18 osteguna

Mugi antzezlanana Udarregin

Hitzordu bikoitza Mugikortasun Astearekin hilaren 18an. Antzerki emanaldi eta hitzaldi bana izango da. Txerriki Usurbilgo antzerki taldeak Udarregi ikastolan bertan emanaldia eskainiko du Lehen Hezkuntzako laugarren mailako ikasleentzat. Aktoreak ordea berriak ditugu; Gorka Zubeldia eta Edurne Agirrezabalaga, zenbait irakaspen ematera datozen bi udaltzain. “Mugi” izeneko antzezlanak ingurugiroa, bide heziketa eta mugikortasun gaiak uztartuko ditu. Goizeko 11:30etik aurrera.

Pello Lozanok EHuko irakasleak arratsaldean Zubietan kokatu nahi duten errausgailua eta osasuna hizpide izango ditu Sutegin eskainiko duen hitzaldian. Asteko aldarri nagusia den “Aire garbia denontzat” mezuarekin bat egingo du bete-betean. Hitzordua, 18:30ean.

Irailak 19 ostirala

Txerrikiren saioa kaxkoan

Aste berean, Txerriki antzerki taldekoak ikastolan arituko dira eta baita aire librean ere, bigarren emanaldiak eskenatoki gisa Kaxkoa izango baitu. Arratsaldeko 20:15etik aurrera, kale antzerki saioa eskainiko dute, ibilgailu ekologikoei buruzkoa.

Pasa den apirilean ospatu zen Kale Antzerki Egunean eskaini zuten lehen emanaldia, “Txarraka... show!” eta ordutik, beste bitan agertu dira herrian. Estraineko lanak Azpeitiara eramane zuten herriko aktore taldea, pasa den irailaren 6an. Hilero, antzerki munduarekin lotuta antolatzen duten ekimenaren barruan, emanaldia eskaini zuten.

Herritarrei ere, izaera horretako ibilgailuak hartuta, emanaldira joateko gonbitea luzatzen diete Txerriki antzerki taldekoek.

www.noaia.com
USURBILGO ATARIA

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

URDAINTZI S.L.
orainuz

943 37 10 42
943 37 10 42
943 37 10 42
943 37 10 42

Datorren astelehenean, Autorik Gabeko Eguna

Udarregi ikastolako ikasleek egun beteko egitaraua prestatu dute

Norbere auto partikularra etxean utzi eta oinez, bizikletaz edo garraiobide publikoa baliatzea aldarrikatu ohi da irailaren 22an, Europa mailan ospatu ohi den Autorik Gabeko Egunean. Egun horri begira, Udarregi ikastolakoek egun beteko egitaraua antolatu dute. Aurtengo Mugikortasun Asteko azken ekintzak izango dira.

Lanera, aisialdi guneetara, erosketak egitera, egun pasa... Hori guztia eta gehiago egiteko moldatu al gaitzke autorik gabe? Beti, ziurrenik ez, baina uste duguna baino gehiagotan bai. Ohiturak aldatzean dago gakoa. Jarrerak aldatzeko gomendioak ez dira gutxi.

Herriko Agenda 21-etik lanera bizikletan joateak dituen abantailak ez direla gutxi gogorarazten digu; dirua aurreztu, ingurumena zaindu, norbere osasuna hobetu eta autoa gidatzean erreparatzen ez diren txokoak hobeto ezagutu daitezke.

Bizikleta ez bada, hor dago garraiobide publikoa; tren eta autobusak baterik bestera mugitzeko.

Autoa, behar denean soilik

Aukera horietako bakar batek ere ez badio norbaiti balio, eta ezinbestekoa badu, azken aukera, autoa da. Baina azken aukera. Eta kasu horretan, ibilbide berdina egin behar duen beste herritarrekin partekatu dezake ibilgailua.

Gidatu, beti, trafikoko arauak errespetatuta, oinezkoen lehentasuna emanda eta alboan doazen txirrindulariak aintzatzat hartuta.

Bidaiaren amaierara heldutakoan,



UDARREGI IKASTOLAKOAK BIZIKLETAN, IAZ ATERATAKO ARBAZKIAN.

oinezkoen dagokien espazioa ez kendu ezta oztopatu ere.

Aipatu bezala, herriko Agenda 21-eko gomendioak dituzue. Irailaren 22an apli-

katzeko soilik ez, Autorik Gabeko Egunean haratago, urte osorako baliagarriak baitira. Norbere esku dago arnasten duen airea, garbia izatea.

Irailak 22, Autorik Gabeko Eguna

Udarregi ikastolakoek irailaren 22an, egun osorako ekitaldi ugari antolatu dituzte. Hona hemen prestatu duten egitaraua:

9:00 Kaxkoa trafikoarentzat itxiko da.

12:40 Bizikleta itzulera herrian zehar, kiroldegitik abiatuta. Parte hartzea irekia.

15:30-19:30 Puzgarriak kaxkoko kaleetan.

17:00 Txokolata bizkotxoekin Udarregiko DBH 4ko ikasleek banatuta. Bertan, beranduago zozketatuko

diren oparien txartel banaketa.

Ondoren, Zumarteko trikitilari eta txistulariak kaleetan zehar buruhandiek.

20:00 Oparien zozketa kiroldegi aurrean.

Bidaiatu, doan

Donostia edo Zarautz aldera doazen tren edota autobusetan doan bidaiatu ahal izango da hilaren 22an. Erabiltzaileek erositako tiketak udal-tertxera eraman eta ordaindutakoa berreskuratuta ahal izango da.

CLIMATA-T
klimatizazio orokorra

☎ 687 858 390
climata_t@yahoo.es

ARRAINDEGIA
PELLO

Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Begirale titulua eskuratzeko ikastaroa antolatu da

Ttakun elkarteak begirale titulua eskuratzeko ikastaro berri bat antolatu du. Hori bai, izena emateko epea laster amaituko da, irailaren 26a izango da matrikula osatzeko azken eguna. Informazio gehiago, 943 371 448 telefono zenbakian.

Ikastaroa osatzen dutenek Eusko Jaurlaritzako titulazio homologatua jasoko dute. Ez hori bakarrik, Ttakunen egitasmoetan parte hartzeko aukera zuzena izango dute: udako txokoak, kanpaldiak, ludoteka, Eskola Kirola...

Ikastaroa urrian hasiko da eta larunbatetan emango dira klaseak. Urtxintxa Eskolako hezitzaileek eskainiko dute ikastaroa. Izena emateko, 18 urte beteta eduki behar dira (edo ikastaroan zehar bete). Prezioa: 440



IKASTAROA EGITEN DUTENEK TITULUA
ESKURATUKO DUTE.

euro, matrikularen kostea eta aterpeko egonaldien kostea.

Informazio gehiago: Ttakun Kultur Elkarteak; 943 371 448 telefono zenbakian; aisia@ttakun.com helbidean.

Irailaren 26an,

Dantza Taldearen bilera Agerialden

Aurreko astean iragarri genuen bezala, urrian hasiko dira Dantza Taldearen entseguak. Dena den, irailaren 26an bilera bat egingo da ikasle eta gurasoekin, ikastaroko egunak eta ordutegiak zehazteko. Ekainaren lehen edo bigarren asteburuko entsegu orokorrarekin amaituko litzateke ikasturtea.

Lehen Hezkuntzako lehen mailatik DBHko lehen mailara arteko ikasleak biltzen dira Dantza Taldean. Guztira 80-90 bat haur.

Urtean zehar ikasitakoa, udan zehar erakusteko ohitura dute Dantza Taldekoek. Auzoetako festetan emanaldiak eskaini ohi dituzte: San Juan jaietan, Santixabeletan, San Estebanetan, Santueneko festetan



DANTZA TALDEKO ENTSEGUAK
URRIAN HASIKO DIRA.

(igande honetan, 11:30ean, baina dantzariak 10:00etarako egon behar dute bertan).



Urrian hasiko da Zirri-Borro tailerra

Urrian hasiko da Zirri-Borro eskulan tailerra. Ikasturte berrian, pintura eta eskulan ikastaropak eskainiko ditu Susanak. Dena den, izena emateko eta ikastaroen ordutegiak zehazteko bilera bat egingo da irailaren 23an asteartea arratsaldeko 18:30ean. Bilera tailerlean bertan egingo da (ikastola gorriaren behean). Informazio gehiago honako telefono zenbakian: 609 41 38 83.

Office ikastaroa Lanbide Eskolan

Irailaren 29an Usurbilgo Lanbide Eskolan teoriak zein enpresa praktikaz osaturiko "Office" ikastaroa hasiko da. Txekinbidek antolatuta eta honako giza taldeei zuzendutakoa: bere lehenengo enplegua izan ez duten 35 urte bitarteko pertsonak, 12 hilabete baino gehiago lanik egin gabe daramaten 40 urtetik gorako pertsonak eta lan egin nahi duten emakumezkoak.

Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 36 46 00 telefono zenbakira deitu.

Einean Guraso Eskolaren ikastaroak

Einean Guraso Eskolak eta Usurbilgo Udalak, elkarlanean, ikastaro ugari prestatu dituzte. Eskulanetan trebatu nahi dutenek, aukeran, labore, sukaldaritza, pintura edota bitxigintzan eman dezakete izena. Baina badira ariketa fisikoarekin lotutako ikastaroak ere, saloi dantzak, yoga, sabel dantza...

Urrian hasiko dira Einean Guraso Eskolak prestatu dituen ikastaroak. Azpiko taulan ikusiko duzueenez, ikastaro batzuk aste gutxi batzuetan osatzeko modukoak dira: sukaldaritza eta autoestima tailerrak. Baina badira ikasturte

osoan zehar luzatuko direnak: laboreak, saloi dantzak, yoga, lore artea edota bitxigintza.

Izen-ematea, irailaren 26an

Batzuetan zein besteetan, izena emateko epea datorren astean amaituko da, irailaren 26an.

Einean Guraso Eskolakoak Txaramunto 1 kaleko egoitzan (AEK-ko lokalean, Zumarte Musika Eskolaren ondoan) izango dira irailaren 26an ostirala, ordutegi honetan: goizez 11:00-12:00. Arratsaldez, 17:00-19:00. Telefonoz ere egin daiteke, arratsaldez deituz, 17:00etatik 19:00etara: 615 006 535.



BESTEAK BESTE, LABOREAK IKASTEKO AUKERA DAGO.

LABOREAK

Boliloak, "punto cruz", gantxiloa... Urritik ekainera, astean behin bi orduz.

SALOI DANTZAK

Indi hoop, salsa, merenge, tango, rock... Urritik ekainera, astean behin bi orduz.

YOGA

Luzaketak, arnasketak, lasatzeak... Urritik ekainera, astean behin bi ordu eta erdiz.

MEMORIA LANTZEN

Urrian hasita, astean ordubete, 12 astez.

SUKALDARITZA

Urrian hasita, 6 astez, astean ordu eta erdi.

ESKULANAK, PINTURA,

ERRESTAURAZIOA

Oleoa, akuarela, pastela, pintura tela gainean... Urritik ekainera bitartean, astean behin bi orduz.

SABEL DANTZA

Urritik ekainera bitartean, astean behin bi orduz.

BITXIGINTZA

Urritik ekainera bitartean, astean behin ordu eta erdiz.

MASAJEA

Lau hilabete, astean behin bi orduz.

AUTOESTIMA

Azaroan hasita, 8 aste, ordu eta erdi astean.

LORE ARTEA

Urritik ekainera bitartean, astean behin ordu eta erdiz.

IZEN-EMATEA

Txaramunto, 1 kaleko egoitzan (AEK-ko lokalean, Zumarte Musika Eskola ondoan). Irailak 26 ostirala, goizean 11:00-12:00. Arratsaldean, 17:00-19:00. Telefonoz arratsaldetan, 615 006535 (17:00etatik 19:00etara).

Memoria lantzeko ikastaroa antolatu du Gure Pakeak

Gure Pakea elkarteak memoria lantzeko ikastaroa antolatu du. Aukeran, euskaraz edo gazteleraz egin ahal izango da. Izen-ematea Gure Pakearen egoitzako bulegoan egin beharko da. Goizez, 10:00etatik 12:00etara eta, arratsaldez, 16:00etatik 18:00etara. Kontuan izan irailaren 24an amaituko dela izena emateko epea. Ikastaroa, ordea, urrian hasiko da.

Gure Pakea egoitzak, bestetik, ordutegi berria du. Goizez, 9:00-12:00. Arratsaldez, 16:00-18:00.

80 urtekoen omenez

Urriaren 5ean, 80 urte betetzen dituzten bazkideen omenez bazkaria egingo da Atxegan. Txartelaren prezioa 35eur o, eta irailaren 26ra bitartean salduko dira Gure Pakea egoitzako bulegoan.



URRIAN HASIKO DA MEMORIA LANTZEKO IKASTAROA.

Txupinazoaren zain dira Santuenean

Ostiral honetan, arratsaldeko 17:00etan jaurtiko dute lehen suziria

Jaien lekukoa Santuenera iristear da. Ostiral honetan, txupinazoa jaurti eta asteburu bete ekitaldi hasiko da. Eguneroko kontuak alde batera utzi eta ondo pasatzeko garaia askorentzat.

Auzotarrek modu batean edo bestean nabari behar dute edo gogoan izan, asteburu honetan Santuenean biziko den jai giroa. Hilaren 19an, 17:00etan entzungo dira lehen suziri hotsak. Hortik aurrera, globo gerrarekin busti, txokolatada eder batekin eta sardin janarekin sabela bete edota txaranga doinuekin dantza egin ahal izango da.

Tradizioari lotutako ekitaldirik ere berreskuratu dute Jai Batzordekoek. Goizaldean ospatuko diren gazte jokoen artean, animatzen denak txerri harrapaketan parte hartzeko aukera du.

Aipatutakoa, jaien hasiera baino ez da izango. Asteburuan zehar, Dj Larra eta Josune Aranburu, haur jolasak,



48 ORDU PASATXOKO FESTA BIZIKO DUTE SANTUENEAN, ASTEBURU HONETAN. ORIA IBAI ONDOKO AUZOA PREST DAGO AUZOTARREI ETA BERTARATU NAHI DUTEN GAINERAKOEI HARRERA EGITEKO.

herri bazkaria... izango baitira. Proposamen zerrenda luzea Santuenera gerturatu nahi duenaren-tzat. Jai

Batzordekoek guztia prest izango dute; karpa txuria, oholta, txosna... Has dadila festa!

Ekitaldiz betetako asteburua izango da

Irailak 19, ostirala

17:00 Txupinazoa eta txokolatada jubilatuen tabernaren aurrealdean.

Ondoren, globo gerra.

18:30 Buruhandiak.

19:00 Sardin jana txarangarekin.

21:00 Musikarien afariak.

Ogitartekoak egongo dira karpa berdinean bertan afaldu nahi duten guztientzat.

23:00 Kontzertuak: Odolaren

Mintzoa, Gaueko Itzala, Buruak Beste, NPJ.

Ondoren, gazteen jokoak

(Altxorraren bila, txerri harrapake-ta, globo gerra...) eta segidan

txokolatada, Auzoko Kultur

Elkarteko gazteek banatuta.

Irailak 20, larunbata

11:00 Haur jokoak.

12:00-14:00 Haurren parkea

plazan: puzgarriak, kuads...

14:00 Haurren bazkaria (Bakoitzak

bere bazkaria ekarri. Edariak eta postrea banatuko dira).

16:00 Mus txapelketa (15:30-

16:00 bitartean inskripzioa).

17:30 Txokolatada Tragoxka tabernaren aurrean.

16:00-19:00 Haur jolasak.

Ondoren, buruhandiak.

20:30 DJ Larraren ongi etorria

afarira datozenei.

21:30 Kantu afaria gure

Josunerekin.

00:00 DJ Larra goizaldera arte.

Irailak 21, igandea

11:30 Herriko dantzariak plazan.

Ondoren, hamaiketako jubilatuen tabernaren aurrealdean.

12:00 Toka.

14:00 Herri bazkaria. Ondoren, txaranga.

17:00 Agiliti elkarteak emango duen zakurren erakustaldia plazan.

18:30 Jaiola Zaldi doma plazan.

Segidan, buruhandiak.

19:30 Piper dastaketa.

21:00 Traka eta suzko zezena.

Antolatzailea: Santueneko Jai Batzordea.

Erraustegiak baserrietan izan dezakeen eragina aztertuko da Sutegin egingo den hitzaldian

Alkartasuna kooperatibak lehen 100 urteak bete ditu. Ospakizun hutsean erori gabe, interesgarri diren hitzaldi, ikastaro eta ekitaldi asko prestatu dituzte. Datorren astekoa ere erakargarri izateko osagai asko ditu. Peio Lozano adituak erraustekak baserrietan izan dezakeen eraginaz hitz egingo du. Gogoan izan eguna: irailak 25 osteguna, 19:30ean Sutegin.

Erraustearen aurkako plataforma osatu zen garaian, berehala nabarmendu zen bere hitz jarioarengatik, gai azagutzagatik. Usurbilen eta, orohar, Gipuzkoan hitzaldi asko eskaini zituen duela lau bat urte. Gaur egun, jendaurreko agerpenak utziak ditu baina erraustegien aurkako mugimenduko kide izaten jarraitzen du.

Duela hilabete batzuk, mondraberri.com webguneari eskainitako elkarrizketa batean datu esanguratsuak aipatu zituen:

- Gipuzkoa mailan, osasun komisioak 1.500 txosten baino gehiago bilatu ditu eta haietan argi azaltzen dira erraustegiek osasunean zein ingurumenean eragiten dituzten kalteak.

- Foru Aldundiak berak onartua du zaborren %92a birzikla daitekeela eta orduan, zergatik ez da portzentaia horretan berrerabiltzea bultzatzen?

- Erraustegia jasangarria ez dela erakusten duen beste datu bat: erraustegiek ez dituzte orain arteko zabor-tegiak ezabatzen.

Irailaren 25eko hitzaldian seguru datu deigarri gehiago eskainiko dituela Peio Lozanok.



PEIO LOZANO SUTEGIN IZANGO DA IRAILAREN 25EAN OSTEGUNA, ARRATSALDEKO 19:30EAN.

Datorren astean Sutegin, kubatar doinuak entzuteko aukera aparta

Kubako doinu tradizionalak Keskaintzen ditu Morena Son taldeak. Beraz, irailaren 27an Sutegin eskainiko duten kantaldian, Kubarekin harremanatzen ditugun kantu ezagun horietako batzuk eskainiko dituzte.

Aimeé Campos musikari eta kantariaren zuzendaritzapean osatu zen Morena Son taldea 1998an. Ordutik hona, emanaldi askotan hartu dute parte, Kuban bertan eta baita Kubatik kanpo ere. Aipatzekoa da Morena Son taldeko partaide denak emakumeak direla. Uda honetan, ExpoZaragozan aritu dira zuzenean. Inguruan direla aprobeztatzuz, Sutegiko auditorioan arituko dira datorren larunbatean, arratsaldeko 20:00etan hasiko den kantaldian.



MORENA SON TALDEKO KIDE DENAK EMAKUMEAK DIRA. IRAILAREN 27AN ARITUKO DIRA SUTEGIN, 20:00ETAN HASIKO DEN KANTALDIAN.

“Haurrak gustura daude eta gu oso lasai goaz lanera”

8:00etatik 9:00etara, zaintza-zerbitzua dago martxan Udarregi ikastolan

Amak eta aitak lan egiten duten garai hauetan, lana eta familia uztartzea ez da gauza erraza. Ikasleak 9:00etan hasten dira ikastolan. Baina guraso asko ordurako lanean izaten dira. Zaintza-zerbitzua funtzio hori betetzera dator. Gurasoek begirale baten eskuetan uzten dute haurra goizeko 8:00etan Agerialden, klaseak 9:00etan hasten diren arte. Ordubetez eta toki goxo batean. Eta etxeokak edo ingurukoak kateatu gabe. Hori bai, kuota bat ordaindu behar da. Aitziber Urruzmendi eta Jon Mikel Larrea dira zerbitzu hau bultzatu eta zerbitzu hone-taz baliatu diren bi guraso.



AGERIALDEN ESKAINTZEN DEN ZAINZA-ZERBITZUAZ BALIATZEN DIREN BI GURASO.

Aurten, lehen aldiz, zaintza-zerbitzuaz baliatzeko aukera dute Udaregiko gurasoek. Zerbitzua jada martxan dago eta izena emateko epea irekita dago oraindik. Irailaren 30a izango da izena emateko azken eguna. Agerialdeko eraikinean, lehen solairuan biltzen dira haurrak. Izena emateko, gurasoak bertara hurbildu daitezke, begiraleari izena eman eta listo.

NOAUA! Gurasoek duten arazo bati erantzuten dion zerbitzua da hau, ezta?

Aitziber Urruzmendi. Ni Lasarte-Oriakoa naiz berez, baina duela zazpi urte etorri nintzen hona bizitzera. Ez ginen ikastolako ordutegira egokitzen eta ikastolako zuzendariarekin jarri ginen harremanetan, guk begirale bat kontratatuko bagenu ea zentroa utziko ziguten jakin nahi genuen. Eta baiezkua erantzun ziguten. Lasarte-Oriako Landaberri ikastolan ere, horrela hasi ziren. 6-7 umerekin eta orain ia 30 daude.

Herri honetan jendea orain arte aitona-monekin edo bizilagunekin moldatu izan da; ni ere agian moldatu naiteke modu horretan, baina ez zait oso egokia iruditzen. Egutero, udan zein neguan, umeak aitona-monekin ikastolara bidaltzea ez zait egokia iruditzen.

Jon Mikel Larrea. Ni uda honetan etorri naiz Donostiatik hona. Guk ikastolaz aldatu dugu alaba, lehen Jakintza ikastolak zerbitzu hori eskaintzen zuen, eta horrela moldatzen ginen. Haur Eskolara doan semearekin arazorik ez

dut, goizeko 7:45ean eraman dezaket, baina hiru urteko alabarekin ez dut zerbitzu hori Udaregin (9:00etan hasten dira klaseak). Nik, nire kasuan, ezin dut aitona-monekin kontatu. Zaintza-zerbitzuari esker, lanera garaiz joateko moduan naiz; haurrak oso gustura daude eta gu oso lasai goaz lanera.

AITZIBER URRUZMENDI

“Begiralea herrikoa da, tituluduna, euskalduna eta Udaregiko ikasle izandakoa”

A. U. Nik herritarrak animatuko nituzke. Duela 40 urte oso normala izango zen ama denak etxean geratzea, baina gaur egun aitak eta amak lan egin behar dugu eta gehienok 9:00etarako lanean gaude, edo lehenago. Zaintza zerbitzua goizeko 8:00etatik 9:00etara jarri dugu baina gehienek 7:30etik aurrera nahiko lukete.

N. Nola finantzatzen da?

J. M. L. Gurasoek, ehuneko ehunean.

A. U. Ume kopuruaren arabera ordaintzen dugu orain, baina beste toki batzuetan bezala, hemen ere kuota estipulatu bat egon beharko luke. Prezioak ez luke ume kopuruaren arabera egon behar. Agian konponbidea hau litzate-

ke: Udalarena da eraikina, gestioa Udaregirena. Ba azkenean, akordio bat egon beharko luke denen artean, zerbitzu asistentzial hori bermatzeko, are gehiago, goizeko 7:30etik 9:00etara, inguruko ikastetxe guztietan bezala. Orion, esate baterako, Udalak diruz laguntzen du, ume bakoitzeko bakarrik 20 euro ordaintzen dute gurasoek, berdin dio 5 edo 15 ume egon.

N. Eta ordubete hori, aisian pasatzen dute hurrek, ezta?

A. U. Haur txikiak eskola garaian egiten dituzten antzeko gauzak egiten dituzte zaintza-orduan. 6 urtekoek akaso etxeko lanak egingo dituzte.

J. M. L. Gauza kurioso bat. Astebete daramagu haurrak zaintza-zerbitzura eramaten eta ikusi ditugu haurrak, goizeko 8:30ak aldera Udaregi kanpoan, klaseak noiz hasiko zain. Guraso horiek jakin dezatela prezio normal bat ordainduz bere haurra egon daitekeela toki goxo batean, begirale batekin eta aktibitate batzuk egiten.

N. Gaztetxoak pozik al daude begiralearekin?

A. U. Haurrak oso gustura daude. Hau ere inportantea da; ratioa litzateke, 12 hurrekin begirale bat egotea. Zentzu horretan, behar diren begiraleak jarriko dira.

Igande honetan, Herri Lasterketa

Aurten osatu den Baxurde Txiki Triatloi taldeak I. Baxurde Krossa antolatu du igande honetarako, hilaren 21erako. 10,5 kilometro luzeradun ibilbideak Usurbil, Santuenea, Zubieta eta Kalezar lotuko ditu. Irteera ordua goizeko hamaiketan jarri dute, frontoi atzean, eta leku berean amaituko da. Lasterketa herrikoia lehenera edizio honetarako izen emateak zabalik jarraitzen du.

Parte hartzaile gehienek egunean bertan izena emateko ohitura izaten dute, baina ez dira gutxi alde aurretik apuntatu direnak. Batzuk zein besteak Baxurde Txiki Triatloi taldeak antolatu duen lehenera Baxurde Krossean irtenko dira.

Igande honetan, irailaren 21ean ospatuko da kirol proba. Goizeko hamaiketan finkatu dute antolatzaileek, proba hasteko ordua. Irteera eta helmuga gunea berriz, bat eta bera izango da; frontoi atzea.

Herri desberdinetan antolatzen diren halako kirol probek geroz eta oihartzun handiagoa izan ohi dute. Askorentzat gainera, proba ezin ego-kiagoak dira, azaroan ospatu ohi den Behobia-Donostia lasterketa sonaturako prestatzeko.

Gainera, geure ingurua behar beza-

la ezagutzeko aukera ere emango du I. Baxurde Krossak.

Ibilbidea

Kaxkoa, Santuenea, Zubieta eta Kalezar lotuko ditu I. Baxurde Krossak. Frontoi atzean hasi eta errotatik behera Bizkarrera joango dira kirolariak. Handik Santuenera, gero, Zubietako bidea hartzeko. Etxeberria parean, Iruin aldera joko dute lasterkariak eta handik Eskola Txikietara, berriz Santuenera itzultzeko. Bizkarre pasa, eta Askatasuna plaza ondoko errotatik gora, Kalezarretik barrena aurrera jarraituko du ibilbidea.

Alkartasuna Nekazal Kooperatiba atzetik Olarriondora jaitsi, handik Udaregi ikastolara igo eta beherantz, helmugara ailegatuko dira berriz ere, frontoi atzera. Guztira, 10,5 kilometro luzeko korrika saioa izango da.

Helmuga...

Ibilbidea eginda, amaieran, ur zein freskagarriak edateko edota txokolata dastatzeko aukera izango dute. Galdutako indarrak berreskuratzeko. Krossaren erdia egindakoan ere, ura edateko zerbitzua eskainiko zaie.

Parte hartzaileak ez dira esku hutsik geratuko. Guztiek kamiseta bana jasoko dute. Ibilbidea inork baino lehena-



GOIZEKO 11:00ETAN EHINGO ZAIO
LEHEN HERRI KROSSARI.

go bukatzen duten lehenera hiru gizon eta emakumeek sari bana jasoko dute. Zozketak ere ez dira faltako. Korrikalari trebeena nor izango den eta hark datozen edizioei begira, zer nolako marka finkatuko duen jakitea besterik ez da falta jada.

Izen ematea

Alde aurretik 5 euro ordainduta, izena eman daiteke herrikoia.com web gunean edota 661 258 977 zenbakira deituta. Egunean bertan ere izena eman ahal izango da, 8 euroren truke.

Trafiko mozketak

Goizeko hamaiketan hasiko da kirol proba, baina lehenagotik korrikalariak egin beharreko bidea trafikoarentzat itxi egingo dute. Beraz, adi autoa hartu behar dutenek.

Enrike Abril Txapelketako partidak

Aurreko asteburuan, Enrike Abril Txapelketako partidak bertan behera geratu ziren euriarengatik. Jardunaldi berri bat jokatuko da irailaren 28an. Zubietako plazan, goizeko 11:00etatik aurrera, Luzaz Gazte (Donibane Lohizune) eta Zubieta 1 taldeek neurtuko dituzte indarrak.

Egun eta ordu berean, Zubieta 2 taldeak Villabonan jokatuko du Behar Zana taldearen aurka.

Aginagako Pilota Txapelketa

Aurreko larunbatean, partida Ahauek jokatu ziren Aginagan. Kadeteen mailan, Gorka Mendizabal-Imanol Zinkunegi bikotea nagusitu zen, Julen Uli-Markel Galarraga bikoteari 22-14 irabazita.

Nagusietan, indarrak parekatuta izan ziren. Ojuel-Eñaut Esnaola bikotea gehiago izan zen. Azken emaitza: Ojuel-Eñaut Esnaola 22, Asier Portu-Txapartegi 17.

Sarai Lizaso, Kontxako Banderan

Bigarren jardunaldia irabazi zuen Oriok baina Kontxako Bandera Castrorentzat izan zen. San Pedrokoak seigarren izan ziren (bi usurbildar daude taldean, Alex Udabe eta Iñaki Portularrume). Aurten, emakumeek hartu dute parte lehen aldiz eta Galicia izan da nagusi. Sailkatze-estropadan Kataluniako bi talde hartu zuten parte eta horietako batean Sarai Lizaso usurbildar gaztea aritu zen patroil lanetan.

Autobus Ordutegia

Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40	>>	08.05	08.15	08.25	06.45	06.55	07.05	>>	07.30
08.10	>>	08.35	08.45		07.15	07.25	07.35	>>	08.00
08.40	>>	09.05	09.15	09.25	07.45	07.55	08.05	>>	08.30
09.10	09.30	09.35	09.45		08.15	08.25	08.35	>>	09.00
09.40	>>	10.05	10.15	10.25	08.45	08.55	09.05	>>	09.30
10.40	>>	11.05	11.15	11.25		09.30	09.40	09.45	10.10
11.40	>>	12.05	12.15	12.25	09.45	09.55	10.05	>>	10.30
12.10	12.30	12.35	12.45			10.30	10.40	10.45	11.10
12.40	>>	13.05	13.15	13.25	10.45	10.55	11.05	>>	11.30
13.10	13.30	13.35	13.45		11.45	11.55	12.05	>>	12.30
13.40	>>	14.05	14.15	14.25	12.45	12.55	13.05	>>	13.30
14.10	14.30	14.35	14.45			13.30	13.40	13.45	14.10
14.40	>>	15.05	15.15	15.25	13.45	13.55	14.05	>>	14.30
15.10	15.30	15.35	15.45		14.45	14.55	15.05	>>	15.30
15.40	>>	16.05	16.15	16.25	14.45	14.55	15.05	>>	15.30
16.40	>>	17.05	17.15	17.25		15.30	15.40	15.45	16.10
17.40	>>	18.05	18.15	18.25	15.45	15.55	16.05	>>	16.30
18.10	18.30	18.35	18.45			16.30	16.40	16.45	17.10
18.40	>>	19.05	19.15	19.25	16.45	16.55	17.05	>>	17.30
19.10	19.30	19.35	19.45		17.45	17.55	18.05	>>	18.30
19.40	>>	20.05	20.15	20.25	18.45	18.55	19.05	>>	19.30
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00		19.30	19.40	19.45	20.10
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	>>	20.30
22.15	22.35	22.40	22.50	23.05	20.45	20.55	21.05	21.10	21.30
					21.15	21.25	21.35	21.40	22.00

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08.00	08.20	08.25	08.35	08.45	06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45	07.45	07.55	08.05	08.15	08.40
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45	08.45	08.55	09.05	09.15	09.40
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45	09.45	09.55	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45	10.45	10.55	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45	11.45	11.55	12.05	12.15	12.40
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45	12.45	12.55	13.05	13.15	13.40
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45	13.45	13.55	14.05	14.15	14.40
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45	14.45	14.55	15.05	15.15	15.40
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45	15.45	15.55	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45	16.45	16.55	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45	17.45	17.55	18.05	18.15	18.40
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45	18.45	18.55	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	20.15	20.40
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45	20.45	20.55	21.05	21.15	21.40
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15	21.45	21.55	22.05	22.15	22.40

LARUNBAT GAUETAN

00.00	>>	00.25	00.35	00.45
01.00 ^M	>>	01.25 ^M	01.35 ^M	01.45 ^M
02.00	>>	02.25	02.35	02.45
04.00	>>	04.25	04.35	04.45
05.00 ^M	>>	05.25 ^M	05.35 ^M	05.45 ^M
06.00	>>	06.25	06.35	06.45

LARUNBAT GAUETAN

23.15	23.25	23.35	>>	00.00
00.15 ^M	00.25 ^M	00.35 ^M	>>	01.00 ^M
01.15	01.25	01.35	>>	02.00
02.15 ^M	02.25 ^M	02.35 ^M	>>	03.00 ^M
03.15 ^M	03.25 ^M	03.35 ^M	>>	04.00 ^M
04.15 ^M	04.25 ^M	04.35 ^M	>>	05.00 ^M
05.15	05.25	05.35	>>	06.00

00.00 Irailak LANEGUNETAN bazari (G) Udaberriak 08/06/23 08/09/07 (C) Negut bazari

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06.08	06.15	06.24	06.39	05.47	06.03	06.14	06.20
08.38	08.45	08.54	07.09	06.17	06.33	06.44	06.50
07.08	07.15	07.24	07.39	06.47	07.03	07.14	07.20
07.38	07.45	07.54	08.09	07.17	07.33	07.44	07.50
08.08	08.15	08.24	08.39	07.47	08.03	08.14	08.20
08.38	08.45	08.54	09.09	08.17	08.33	08.44	08.50
09.08	09.15	09.24	09.39	08.47	09.03	09.14	09.20
10.08	10.15	10.24	10.39	09.47	10.03	10.14	10.20
11.08	11.15	11.24	11.39	10.47	11.03	11.14	11.20
12.08	12.15	12.24	12.39	11.47	12.03	12.14	12.20
12.38	12.45	12.54	13.09	12.17	12.33	12.44	12.50
13.08	13.15	13.24	13.39	12.47	13.03	13.14	13.20
13.38	13.45	13.54	14.09	13.17	13.33	13.44	13.50
14.08	14.15	14.24	14.39	13.47	14.03	14.14	14.20
14.38	14.45	14.54	15.09	14.17	14.33	14.44	14.50
15.08	15.15	15.24	15.39	14.47	15.03	15.14	15.20
15.38	15.45	15.54	16.09	15.17	15.33	15.44	15.50
16.08	16.15	16.24	16.39	15.47	16.03	16.14	16.20
16.38	16.45	16.54	17.09	16.17	16.33	16.44	16.50
17.08	17.15	17.24	17.39	16.47	17.03	17.14	17.20
17.38	17.45	17.54	18.09	17.17	17.33	17.44	17.50
18.08	18.15	18.24	18.39	17.47	18.03	18.14	18.20
18.38	18.45	18.54	19.09	18.17	18.33	18.44	18.50
19.08	19.15	19.24	19.39	18.47	19.03	19.14	19.20
19.38	19.45	19.54	20.09	19.17	19.33	19.44	19.50
20.08	20.15	20.24	20.39	19.47	20.03	20.14	20.20
21.08	21.15	21.24	21.39	20.47	21.03	21.14	21.20
22.08	22.15	22.24	22.39	21.47	22.03	22.14	22.20
22.38	22.45	22.54	23.09				

00.00 Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenerik Igandera eta JAIEGAN (G) Udaberriak 08/06/23 08/09/07

Eguneko goardiako farmaziak

Irailak 18, osteguna
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Irailak 19, ostirala
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Irailak 20, larunbata
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Irailak 21, igandea
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Irailak 22, astelehena
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Irailak 23, asteartea
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Irailak 24, asteazkena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 25, osteguna
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Irailak 26, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Irailak 27, larunbata
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Irailak 28, igandea
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Correa Farmazia (22:00-09:00), Perkaiztegi kalea, 8 Hernani 943 33 60 22
*Usurbilen, soilik eguerdira arte

Larunbat gauetan, autobus zerbitzu bereziak

Irailaren 20tik aurrera, Zumaia eta Donostia arteko larunbat gaueko autobus zerbitzua jarriko da martxan. Egun horretatik aurrera, larunbatero, Zumaia Donostia doazen autobusak ordu honetan pasako dira Usurbildik: 23:35ean, 01:35ean, 03:35ean eta 05:35ean.

Aurkako noranzkoan, Donostiatik Zumaia, autobusak Donostiatik ordu honetan aterako dira: 00:00etan, 02:00etan, 04:00etan eta 06:00etan (Usurbilen ere geldituko da).

Informazio gehiago, 902 543 210/
www.euskotren.es.

Tren Ordutegia

Agenda !**Irailak 25 osteguna**

Erraustegiaren ondorioak gure baserrietan, hitzaldia. Hizlaria: Peio Lozano. 19:30ean Sutegin. Antolatzailea: Alkartasuna Kooperatiba.

Irailak 26 ostirala

Bertso-afaria Xabier Amuriza eta Joxe Agirrerekin. 21:00etan Olarrondo jatetxean. Antolatzailea: Nafartarrak.

Irailak 27 larunbata

Morena Son Kubako taldea Sutegin. 20:00etan.

Irailak 28 igandea

Magia Teilatueta antzerkia. 17:30ean, Sutegin. 5 urtetik gorako haurrentzat. Sarrera doan. Antolatzaileak: Kutxa, Udala.

KzGunea

Irudi digitalaren tratamendua I
Irailak 23/24, 16:00-18:00

Irudi digitalaren tratamendua II
Irailak 25/26, 16:00-18:00

Sinadura elektronikoa
Irailak 26, 18:00-20:00

Sinadura elektronikoa
Irailak 29, 16:00-18:00

Kontsumitzailea sarean
Urriak 1, 16:00-18:00

Irailan, arratsalde. Ordutegia:
16:00-20:00. Kale Nagusia, 37.
Tf: 943 36 14 12.

Bertso-afariko txartelak aldez aurretik erosi behar dira

Astebete barru, Xabier Amuriza eta Joxe Agirre elkarrekin ari tuko dira kantuan. Olarrondo jatetxean egingo den bertso-afarian, hain zuzen. Menua ere kategoriakoa izango da: entsalada epela, bakailoa konfitatua piparrekin, idi-txuleta, gazta tarta, kafea, kopa eta purua. Edateko, sagardoa eta ardoa aukeran.

Nafartarrak taldeak antolatu du irailaren 26ko bertso-saioa, baina txartelak erosteko azken eguna irailaren 22a izango da. Olarrondon bertan, Txiribogan, Aginagako Arraten, Zubietako Barazarren, Añorgako Jolas Etxean, Lasarte-Oriako Jalgin



XABIER AMURIZA ETA JOXE AGIRRE
BERTSOLARIAK ARITUKO DIRA
OLARRONDON.

eta Orioko Kolon Txikin aurkituko dituzue txartelak salgai, 30 eurotan.

Gure Pakea elkarteak antolatutako bazkaria

Urriaren 5ean, igandez, aurten lau rogei urte betetzen dituzten bazkideen omenez antolatutako ekin-tzen artean, goizeko 11.30ean meza izango da parrokiari, euskaraz, eta ondoren bazkaria Atxegan, arratsaldeko 14:00etan.

Bazkari honetara joan nahi dutenek, bai omenduen senideek edo lagunak, txartela erosi beharko dute aldez aurretik. Txartelaren prezioa 35eur o, eta irailaren 10etik 26ra bitartean salduko dira Gure Pakea egoitzako bulegoan. Gogoan izan izena emateko azken eguna irailaren 26a izango dela.

Yoga ikastaroa antolatu da Aginagan

Aginagako Zaharren Egoitzan Ayoga ikastaroa prestatu dute.

Ikastaroa irekia da eta nahi duenak izena eman dezake. Horretarako Zaharren Egoitzara jo behar dute, edota telefono zenbaki honetara deitu: 943 36 63 40.

Urriaren 1ean asteazkena hasiko da yoga ikastaroa eta ikasturtean ere, saioak asteazkenetan egingo dira, ordutegi honetan: 20:00etatik 21.30era.

Informazio gehiago, hala ere, Zaharren Egoitzan bertan. Argixurengatik galdetu.

JOSUE
ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA
eta
PINTURA
Juan Jose enea, 6 Kalezar
Telf: 606 37 21 05

ERRAZKIN
Igeltsaritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

ETXEBIZITZA

- Etxe bat alokatu nahiko nuke ahal bada Usurbilen edo inguruan, bakarrik edo konpartitzeko. 620431108.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte osorako. 675709894
- Baseri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilagunentzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baseri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berritua eta amueblatua. 49.800.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 220.000 euro. 678084020.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisu salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukaldea, egongela eta trasteroarekin. 685731792.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Citroen Saxo diesela daukat salgai. Matrikula SS-BC da. 656734413 (Marijo).
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabiltza. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan

behar du. 647299299.

- Volswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajeen egondakoa. 620625823.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00era edo bestela kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Kamarera bat behar da, Antxeta tabernan lan egiteko barran, esperientziarekin. Astelheenetik ostiralera lan egiteko. 943 37 03 44.
- Neska euskaldun bat behar da Usurbilgo Kinkildegian lan egiteko. Interesatuak deitu 609099824 / 943214508 telefonora.
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 679062726 / 943575788
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 661702708 / 943575788
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Ordutegian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrek emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.

Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko goizeko 7:30etik goizeko 9:30/10:00ak arte. Umeak zaindu edota ikastolara eramateko, astelheenetik ostiralera. 647 742 893.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Garbiketean, gaixoak zaintzen... edo bestelako lanetan. 608 00 54 06.
- Lan bila nabil. 608 83 50 33.
- Fisika eta matematikako klase partikularrek emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte.

685 772 602 // 943 371 277.

- 18 urteko neska usurbildar bat eskaintzen da uztailean goizez edo arratsaldez haurrak zaintzeko. 621626500
- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu astebukaeratan lan egiteko. Telefono zenbakia: 943 366 710.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Yorkshire terrier arrazako txakur bat galdu zaigu. Bilatuz gero deitu zenbaki honetara: 609 653 440. Txakurra itzultzen duena saritua izango da.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Bakarkako haur ohe bat salgai koltxoi eta guzti. Tamaina: 90 x 1,90. Oso gutxi erabilia eta polita. Interesdunek: 629 730 299.
- Arropadenda batetarako altzariak eta mostradore bat saltzen da merke. 943 363 448.
- Betaurreko batzuk galdu genituen ekainaren 20an, arratsaldean, Ardi Beltz garagardotegi parean. Aurkitu badituzu: 943 370 249.
- Txandal baten jertsea galdu da, urdin argia eta Adidas markakoa. 10 urteko ume baten tamainakoa. 943 37 68 97.
- Belarra mozteko eta fardoak egiteko zerbitzua. Tel: 607457004 Dani.
- 1,5 metroko somiera eta koltxoia salgai. 943 36 65 89 telefono zenbakian.
- Usurbilen edo inguruan belardiak behar dira belarra ontzeko. 607 45 70 04. 943 36 60 40. Dani.
- Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberriari umea egingo dutenak. 653719176.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberrieekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Kotxeko aulkixoa salgai. Maxi Cosi Priori XP 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Aritz egurrezko aulkiki salgai. 943 36 20 49.
- 2. eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Uxue!

Irailaren 21ean, 9 urte beteko ditu. Zorionak, Ioritz, aita eta amaren partetik.



Urte askun Miriam! Irailaren

21ean 8 urte beteko dituzu. Ondo pasa ezazun zure egunean opa dizugu Agiñako eskolako lagunok.

HILDAKOAK

Juan Cruz Aizpurua Apeztexea Irailaren 10ean hil zen 50 urte zituela. Kaleberri.



Zorionak Uxue!

Irailaren 21an izango da zure urtebetetzea. Zorionak eta muxu potolo bat Aitziber eta Aintzaneren partez.

HILDAKOAK

Mirotz Ullate Izagirre Irailaren 9an hil zen 16 urte zituela. Kaleberri.




JAIOTZAK

Zihara Saez de Urabain Torregarai, abuztuaren 29an jaio zen.

Oharra: *Jaiotzak*, Usurbilgo Bake Epaitetik jasotako datuak. Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoan edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan telefono zenbaki honetara: 943 360 321. E-posta: erredakzioa@noaua.com

Auto Guria



Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)
☎ 943 363 298 • Faxe: 943 363 862

I. URRUZOLA ARROZTEGIA


**Konfiantzazko arrotza nahi baduzu,
etor zaitez gurera**

- Era guztietako arrotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.



Oria etorbidea 4, behea
(Errekatxo jatetxearen ondoan) LASARTE
Tel.: 943 371 200 • 610 413 131

ABERASTU ZAITEZ! EGIN ZAITEZ BAZKIDE



Noaua! Kultur Elkarteko bazkide egiten bazara, "Usurbilgo baserriak eta baserritarrak" liburua jasoko duzu doan

Izen deiturak: Jaiotze data: Sexua:

NAN zenbakia: Helbidea:

Herria: Posta kodea: Bizibidea:

Tel: e-mail:

Banketxea: Kontu korronteko zkia (20 digitoak):

Bazkide KUOTA: 36€ (Uztailean kobratuko da kontu korrontetik)



EUROPAKO MUGIKORTASUN
IRAUNKORRAREN ASTEA



UDALSAREA

Aire garbia denontzat!

osasunaren alde...

errausketarik ez!

2008ko irailaren 16tik 22ra

Nire autorik gabeko hiria!



EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAIA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Euzko Jaurlaritza Herri-Beltzua
Sociedad Pública del Gobierno Vasco

 **ingurumena.net**
Gure esku dago
está en nuestras manos

 **ihobe**



Usurbilgo Udala